


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

CTchip-a kafea, tostadak eta abar asko gustatzen zaien pertsoneri, denbora asko galtzea gustatzen ez zaienei eta gauzak behar bezala ateratzea nahi dutenei zuzenduta dago. Hau da egunero kafea eta tostadak hartzen dituzten pertsonentzat. Beraz, perfil zehatz bat dago gure perfilaren barruan; pertsona helduak adibidez, gurasoak daude goizetan umeak eskolan utzi eta gero kafea hartzen dutenak adibidez, baina populazioaren barruan jende asko dago ez bakarrik pertsona helduak, gazteak ere daude.



Espanian 22 milioi pertsona baino gehiago kontsumitzen dute kafea egunero. %63 espainiar 15 urtetik aurrera hartzen dute gutxienez kafe bat eta astean zehar media 3,6ra igotzen da.

Espanian 14.000 milioi kafe kontsumitzen dira urtean.... Izan ere, International Coffee Organization (ICO) erakundearen ikerketaren arabera, Espainia herrialde kafegileen rankingeko 19. postuan dago, eta urtean 14.000 milioi kafe inguru kontsumitzen ditu.





Datu hauekin esan dezakegu Espainiar gehienak kafea hartzen dutela 15 urtetik aurrera, gure enpresarentzat datu hauek positiboak dira, dakigulako jendeak egunean behin gutxienez kafe hartzen duela eta orduan gure produktuak erosteko bezero asko prest egongo dira.

Gure bezeroak ez dute bakarrik kafea gustoko baizik eta kafe makinaren disenua eta teknologia ere, teknologia berrietan interesa duten bezeroak ere ditugu.

Gure bezeroak kafea bere gustora egingo dute gure produktuarekin, Ct chip-a gure bezeroen kafearen ezaugarriak erregistratuko ditu eta horrela haiek ez dute denbora galduko beraien gustoko kafea prestazen. Ctchip-a azkarra da eta oso erabilgarria horrela gure bezeroak erraz ulertu eta erabiliko dute produktua. Gainera ez dute denbora galduko kafea egiten.

Gure proiektua beste enpresa famatu batzuekin adostu egin dugunez gure produktua ez dugu bakarrik Espainian salduko baizik eta European eta mundu mailan ere. Azkenean Ctchip-a kafe eta tostagailu enpresei salduko diegu, beraiek chip-a inplantatu dezaten beraien produktuetan, eta ondoren bezeroei salduko diete.